

FVEMen MESPRETUAREN AURREAN, HITZARMEN DUIN BATEN ALDEKO **BORROKAN JARRAITU BEHAR DA**


Joan den abenduaren 2an amaitu zen Bizkaiko metalgintzako greba astea. 11 greba egun guztira. Grebak oso ondo atera ziren eta manifestazioak, beste behin ere, jendetsuak. Sektoreko langileok irmo gaitzestu genuen FVEM patronalak azaroaren 25ean egindako proposamena.

ELAk argi du beharrezkoa dela borrokari jarraipena ematea. Grebaren 11 egunek ekarri duten ahalegina ezin da zaku hautsian erori. Patronalak bere proposamena aldatzen ez badu, borroka areagotzeko garaia dela uste dugu.

FVEMek ez du bere jarrera aldatu eta Bizkaiko metaleko langileak mespretxatzen jarraitu du. Joan den abenduaren 2tik, negoziazio mahaiaren beste 2 bilera egin dira (21 guztira), eta bietako batean ere ez zuen mugimendurik egin. Gainera, abenduaren 21ean ez zen negoziazio mahaiaren hurrengo bilera finkatu. Argi dago FVEMen harroputzkeria eta zikoizkeria dela negoziazioa blokeatzeko egoeraren arrazoi nagusia.

ELAren ustez, KPIaren igoerak bermatu behar dira sektore osorako indarraldiko urte bakoitzean. Gainera, edukietan funtsezko beste hobekuntza batzuk behar dira, hala nola lanaldi murrizketa, subrogazioa sektore gehiagotara zabaltzea, ETTen kontrola, benetako berdintasun planak eta hitzarmena aplikatzeko bermeak.

ELAren ustez, sektoreak FVEMen blokeo jarrerei erantzun sendoa eman behar dio. Ezin dugu denbora pasatzen utzi. Bizkaiko metalgintzako langileek dagoeneko erakutsi dute borrokarako prest daudela. Hori dela eta, ELAk abenduan (hilak 14ean eta 21ean) CCOO, LAB eta UGTri helarazi zien greba mugagabea lehenbailehen deitzeko beharra. ELAren ustez, 11 eguneko grebaren ondoren, hurrengo urratsa mobilizazioak eta grebak areagotzea da, Bizkaiko metalak merezi dituen edukiak biltzen dituen hitzarmen bat lortu arte, hau da, sektorean sortzen den aberastasuna modu justuan banatzen duen hitzarmen bat eduki arte. Borroka da garaipena lortzeko bidea.



BIZKAIKO METALA GREBAN!

ABERASTASUNA BANATU!

ANTE EL PORTAZO DE FVEM, HAY QUE CONTINUAR LA LUCHA POR UN CONVENIO DIGNO

El pasado 2 de diciembre finalizó la semana de huelga en el Metal de Bizkaia. 11 días de huelga en total. Las convocatorias fueron ampliamente secundadas y las manifestaciones fueron, una vez más, multitudinarias. Los y las trabajadoras del sector rechazamos con contundencia la propuesta realizada por la patronal FVEM del 25 de noviembre.

Desde ELA hemos venido trasladando la necesidad de dar continuidad a la lucha. El esfuerzo que han supuesto los 11 días de huelga no pueden caer en saco roto. En el caso de que la patronal no modifique su propuesta, entendemos que es hora de incrementar la lucha.

FVEM no ha cambiado su actitud y continua despreciando a los y las trabajadoras del Metal de Bizkaia. Desde el pasado 2 de diciembre, se han llevado a cabo otras 2 reuniones de la mesa negociadora (21 en total) y en ninguna de las dos realizó movimiento alguno. De hecho, el 21 de diciembre, no se fijó siguiente reunión de la mesa negociadora. Esta claro que la prepotencia y avaricia de FVEM es la principal causa de la situación de bloqueo de la negociación.

Desde ELA entendemos que hay que garantizar incrementos de IPC en cada uno de los años de vigencia para el conjunto del sector. Además se necesitan otras mejoras sustanciales en contenidos como reducción de jornada, ampliación de la subrogación a más sectores, control de las ETT, planes de igualdad reales, y garantías de aplicación del convenio.

Desde ELA creemos que el sector necesita poder articular una respuesta contundente a las posiciones de bloqueo de FVEM. No podemos dejar pasar el tiempo. La clase trabajadora del Metal de Bizkaia, ya ha demostrado sobradamente su disposición para la lucha. Es por ello, que ELA trasladó en diciembre (los días 14 y 21) a CCOO, LAB y UGT la necesidad de convocar una huelga indefinida lo antes posible. ELA entiende que tras 11 días de huelga, el siguiente paso es aumentar las movilizaciones y las huelgas hasta conseguir un convenio con los contenidos que merece el Metal de Bizkaia, un convenio que reparta de forma justa la riqueza que se genera en el sector. La lucha es el camino hasta la victoria.



BIZKAIKO METALA GREBAN!
ABERASTASUNA BANATU!